



## Euskara, natura eta jarduera fisikoa ditu ardatz 2022 udarako prestatu den udal aisialdi eskaintzak

- **Gazteria sailak sustatutako 'Leitzarari abentura' ekimena nerabeei zuzenduta egongo da eta txikienek 'Goazen jolastera'-z gozatu ahal izango dute. Maiatzaren 11an irekiko izen-ematea lehen ekintzarentzat eta, bigarrenarentzat, 16an.**
- **Kirol sailak hainbat jardueraz osatutako eskaintza erakargarria antolatu du. 'Uda 2022' kirol jarduera fisikoen programan izena emateko epea maiatzaren 11n irekiko da, ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitartean burutuko da. Sarrera ordutegia 9:00etatik 9:30era izango da.**

Udalak prest du haur eta gaztetxoei zuzendutako udako aisialdi eskaintza, aurreko urteetan bezala, *Goazen jolastera*, *Leitzarari Abentura* eta *Kirol eskaintza* proposamenetan banatuta. **Mari Jose Izagirre**, Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteria zinegotziak, eta **Petri Romero**, funtziotako jarduera fisikoko eta kiroleko zinegotziak, aurkeztu dituzte ekimenak, aurten, egoera pandemikoaren hobetzearekin, normaltasun batera itzuliko direnak.

Izagirrek azaldu duenez, “udalekuean Andoaingo txiki eta gaztetxoek euskaraz eta herriko ingurune natural bikainaz gozatu ahal izango dute, segurtasunez eta giro ezin hobean”. Romerok azpimarratu du “jarduera osasungarriak sustatzen direla, eskaintza zabal eta erakargarriekin”.

**Leitzarari Abentura** bailaran bertan kokatuko den udaleku irekia da eta izenak berak iradokitzen duen bezala, natura, kirola eta aisialdia uztartzen dituzten ekintzek osatzen dute: orientazioa, bizikleta irteerak, piraguismoa, eskalada, arku tiroa, *plogging*-a... **2008 eta 2011 urteen bitartean jaiotako gaztetxoei zuzenduta** dago eta bi txandatan banatuko da: uztailaren 4tik 15era eta uztailaren 18tik 29ra. Asteleheneetik ostiralera, ordutegia 9:30etik 13:00etara izango da. Prezioa 78,50 euro da (64 euro txanda berean bi anai-arrebak izena emanaz gero) eta izen-ematea maiatzaren 11tik 25era bitartean egongo da zabalik. Zozka egingo da ekainaren 2an izen-emateek plaza kopurua gainditzen badute. Guztira, 4 talde osatuko dira taldeko 9 neraberekin.

**Goazen jolastera** ekintzari dagokionez, **2014 eta 2019 urteen bitartean jaiotako haurrentzat zuzendutako** euskarazko udaleku irekia da; tailer, joko, eskulan, txango eta abarrek. Jarduera honek ere bi txanda izango ditu (Ekainak 27- Uztailak 15 eta Uztailak 18- 29). Maiatzaren 16tik 27ra bitartean egongo da izen-ematea zabalik eta, zozketa, maiatzaren 30ean. Prezioari dagokionez, lehen txandaren prezioa 78,50 euro da eta bigarrena 48 euro (bi anai-arrebaren kasuan, lehen txandan bakoitzak 64 euro eta bigarrenean 39 euro). Ekintza honen kasuan, 260 haurrentzako lekua egongo da, 24 taldetan banatuta.

Bestalde, Petri Romero jarduera fisikoko eta kiroleko zinegotziak adierazi duenez, “udal jarduera fisikoko eta kiroleko zerbitzuak Uda 2022 kirol jarduera fisikoen programan izena emateko epea irekiko du maiatzaren 11n” eta hau ekainaren 27tik uztailaren 22ra



## Andoaingo Udala

---

bitartean burutuko da. Hauek dira gaztetxoentzako jarduerak: **igeriketa** (2010- 2018 urteen artean jaiotakoentzat), **Goizean kirolean** (2010-2014 urtekoentzako), **Tenisa** (2006-2014 urtekoentzako) eta **Bizikleta+kirola** (2006- 2009 urtekoentzako).

Izen-emate prozesuaren data maiatzaren 11tik 25era izango da. Behin-behineko zerrendak eta alegazioak: maiatzak 30-31. Zozketa, ekainaren 2an, eta plazen eta ordaintzen baieztapena ekainaren 6tik 15era. Ekainaren 20an emango da izena plaza libreetan. Sartzeko ordu-aukera 9:00etatik 9:30era.

Izen-emateak online egingo dira, jarduera fisiko eta kirol zerbitzuaren webgunean: <http://kirola.andoain.eus>, eta informazio gehiago nahi izanez gero, [allurralde@andoain.eus](mailto:allurralde@andoain.eus) helbidera jo daiteke. Izena emateko epetik kanpo jasotako eskabideak itxaron-zerrendara pasatuko dira. Programazioa antolaketa-jarraibideen arabera egokitu ahal izango da.

### INFORMAZIOA

---

Udarako jardueren eskaintzari buruzko informazio gehiago Udalaren [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) webgunean ala telefonoz: Leitzaran Abentura 943 304 221, Goazen jolastera 660 103 636, Kirol eskaintza 943 300 147.

**Andoain, 2022ko maiatzak 6.**